

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



34. Informazio Buletina 2009ko Maiatza





NABARMENDU BEHARREKOA

Finantza-ikuskapen handiagoaren premia europar batasunean

Europako Batzordearen Komunikazioak baieztatukoaren arabera, finantza-krisiak ikuskapenaren inguruko urritasun larriak utzi ditu agerian, bai kasu partikularrei dagokienez eta baita orokorrean finantza-sistemari lotuta ere. Egungo ikuskapen-erregimena krisia aurreikusteko, kudeatzeko eta konpontzeko desegokia dela ikusi da.

Nazio-mailako ikuskapen-ereduek ez dute egun Europako finantza-merkatuek ezaugarri dituzten integrazioa eta elkarren arteko loturazko egoerak -finantza-erakunde askok mugaz haraindi lan egiten dute- eskatzen zuen bezala jokatu. Nazio-mailako ikuskatzaileen arteko lankidetzan, koordinazioan, koherentzian eta konfiantzan gabezia larriak utzi ditu agerian krisiak.

Testuinguru honetan, finantza-zerbitzuen batzordeei zuzendutako anbizio handiko hainbat erreforma proposatu ditu Batzordeak, finantza-sektorea indartu eta hazkundera eta enplegua sustatzeko xedearekin. Neurrien artean, ikuskatzeko agintari europar berriez osatutako Arrisku Sistemikoen eta Finantza-Ikuskatzaileen Europako Sistema baten Zentro Europarra sortzea jasotzen da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0252:FIN:ES:PDF>

Euskal herriko FEDER programa eragilea 2007-2013: jarraipen batzordea

Maiatzaren 25ean Euskal Herriko POPV FEDER 2007-2013 programaren Jarraipen Batzordearen bigarren bilera ospatu zen Bilbon.

Bileran, 2008an barrena garatutako jarduketan aurrerapena aztertu zen (urteroko betearazpen-txostena). Izan ere, urte horretan Programa Eragilea abiatzeko beharrezko administrazio-izapideak gauzatu ziren eta proiektu eta eragiketa gehienak abian jarri ziren.

Gainera, 2008an POPV-ren komunikazio-plana egin eta onartu zen, eta erkidegoaren araudian ezarritako kudeaketaren gardentasun, fidagarritasun eta eraginkortasunaren irizpideak bete daitezen aplikatuko diren kudeaketa-prozedurak eta eragiketen kontrola landu ziren.

Halaber, Batzordean n+2 arauaren betetzea aztertu zen eta eragiketen jarraipena eta etengabeko ebaluazioa bermatzeko, nola Egitura-Funtsek finantzatzutako eragiketen egokitasuna, koherentzia, eraginkortasuna, efizientzia eta eragina berma daitezen ezarritako mekanismoak aurkeztu ziren.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19241/eu/contenidos/informacion/politica_regional/eu_2340/eaepo.html



KOHESIO-POLITIKA

POCTEFA programa: 18 proiektu berriren onespena

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde-Lankidetzaren 2007-2013 programaren baitan, abenduan ospatutako Programazio Batzordearen bileran kostuak murrizteko eta bestelako baldintzak ezartzeko orduan "aldeko baldintzatuak" izenez kalifikatutako proiektuen elementu berriak aurkezteko epea amaitu zen 2009ko apirilaren 30ean.

Hasierako 41 proiektuetatik 18 proiektu aldeko irizpenez eta aho batez onetsi dira; gainerakoak Programazio Batzordeak aztertu behar ditu.

Proiektu horiei dagokien FEDER aldi bereko finantzaketaren zenbatekoa 12,8 milioi euro (guztizkoaren % 8) da. Zenbateko hau aurretik programatutako aldeko proiektuei gehituz gero, jada esleitutako guztizko zenbatekoa % 45 izango da.

Programa honen baitan eta Pirinotako mendebaldeak Programari proiektuak aurkezteko lankidetzagaiak aztertzeko xedearekin, maiatzaren 7an bilera egin zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko (Ogasun eta Finantza Departamentua) eta Conseil Général des Pyrénées Atlantiques-eko ordezkariak Baionan.

Informazio gehiago:

<http://www.poctefa.eu/noticias/detallenoticia.jsp?id=1fc93bfa-a5d3-4c35-bfd0-8c7b8c8e77de15/05/2009>

Bizitza kalitatea Europako hirietan

Europako Ingurumenerako Agentziaren (EIA) agiriak Europako hirietako bizitza kalitatea aztertzen du, bizitza kalitatean jasagarritasunak eta ingurumenak duten garrantzi erabakigarria azpimarratuz.

Eta bizitza kalitatearen ikuspegi orokorra eskaintzen du, Europako lurraldearen garapen jasagarriari lotuta.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://www.eea.europa.eu/publications/quality-of-life-in-Europes-cities-and-towns?utm_source=EEASubscriptions&utm_medium=RSSFeeds&utm_campaign=Generic



KOMUNITATEKO POLITIKAK

Europako batzordeak bere lorpenak aurkeztu ditu

Batzordearen txostenak azken bost urteotan Europar Batasunak izandako lorpen nagusiak aurkezten ditu. Horien artean, Europaren birbatzea nabarmentzen da, 2004ko eta 2007ko ondoko ondoko bi hedatzeei esker.

Halaber, krisi ekonomikoari lotuta, finantza-merkatuen eta kredituen fluxuen egonkortasuna berrezartzeko eta finantza-sistemaren arautzea eta ikuskapena indartzeko egindako lana azpimarratzen da.

Batzordearen 470 proposamenetatik klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta energia garbiak sustatzeko neurri-sorta nabarmentzen dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/commission_barroso/president/pdf/090528_es.pdf

Hezkuntza eta prestakuntza 2020

Europar Batasuneko Hezkuntza Ministroek, hezkuntza eta prestakuntzaren inguruan lankidetzaz-estrategia marko berri bat adostu zuten maiatzaren 12an.

Marko eguneratua aurreko Hezkuntza eta Prestakuntza 2010 lan-programatik abiatzen da eta 2020. urtera arteko aldia betetzen du. Lau helburu estrategiko ezartzen ditu: Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna errealitate bilakatzea; hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea; ekitatea, gizarte kohesioa eta herritar aktiboak sustatzea; eta sormena eta berrikuntza hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan areagotzea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2009:119:0002:0010:ES:PDF>

Europako Legebiltzarraren ebaluazioa 2004-2009

European Policy Centre-k (EPC) Europako Legebiltzarrak azken legegintzaldian egindako lanaren ebaluazio-azterketa argitaratu du.

Legebiltzarraren emaitza orokorrak nola erabakiak hartzeko prozesuan 2004an eta 2007an egindako bi zabaltzeen eraginaren emaitzak aurkezten dira; zehazki, Legebiltzarreko koalizioen osatze-prozesuari dagozkionak.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://www.epc.eu/TEWN/pdf/539093269_EPC%20Issue%20Paper%2058%20-%20Strength%20in%20numbers.pdf



e-LIBURUTEGIA

Garraioaren egoera Europan

Garraioaren egoerak, Eurostat-ek egindakoa, pertsonen eta merkantzien zirkulazioaren eta garraioaren eta Europar Batasuneko garraio-moduen azterketa eta estatistika zabalak aurkezten ditu.

Era berean, garraioaren ekonomia-sektorea, bere segurtasuna eta energiaren kontsumoan eta ingurumenean duen eragina aztertzen du.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-DA-09-001/EN/KS-DA-09-001-EN.PDF

I+G-AREN inbertsioa europar batasuneko IKT sektorean

Europako Batzordeko Informazio eta Hedabideen Zuzendaritza Orokorraren txostenak, Europar Batasuneko (EB) Informazio eta Komunikazio Teknologien sektorean (IKT) I+G-aren inbertsioaren azterketa zehatza aurkeztu du.

Gastuaren ikuspuntutik azterketa sakona egiten du: ikuspegi orokorra, azpisektoreak, herrialdeak eta enpresak. Eta, era berean, IKT-en joerak azaltzen ditu, I+G-aren "input-output" harremana aztertzen du eta sektorearen patenteak aztertzen ditu.

Informazio gehiago (ingeleza):

<http://ftp.jrc.es/EURdoc/JRC49951.pdf>



ADIERAZLEAK

Industriaren dinamismoa Gipuzkoako eskualdeetan 2007

Eustatek 2007. urtean barrena Gipuzkoako eskualdeetan industria sektoreak izandako bilakaeraren datuak argitaratu ditu, Industria-Kontuen eragiketan oinarrituz.

Urte horretan, Goierri eta Tolosako eskualdeetan sektorearen produkzio-dinamismoa nabarmentzen da, lurralde historikoaren batez bestekoaren gainetik dagoen hazkundearekin. Okupazioari begiratuta, Urola-Kostan enplegu-sorkuntza nabarmentzen da ere.

Eskualdeko produktibitateari dagokionez (balio erantsiaren batez bestekoa enpleguko), Goierri eta Donostiako eskualdeek dituzte indize altuenak.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0005100/not0005187_e.html

Gizarte babesaren gastua Europar Batasunean 2006

Europar Batasunean gizarte babesaren gastua BPGren % 26,9 zen 2006an, estatukideen artean desberdintasun nabarmenak izanik, Eurostatek eskainitako informazioaren arabera.

Honela, Frantzia, Suedian eta Belgikan ehunekoak ozta-ozta gaintzen du % 30a; hainbat herrialdetan (Letonia, Estonia, Lituania eta Errumania), aldiz, ez da % 15era iristen.

Gizarte babesaren finantzazioa, batez ere, gobernuen kontribuzioen (zergak), % 38, eta gizarte zergen (enplegua eta pertsona babestuak), % 59, artean banatzen da. Halaber, banaketa hau oso desberdina da herrialde desberdinetan: aurrekontu-ekarpen handiena Danimarka, Irlanda eta Erresuma Batuan eta gizarte kontribuzioak, berriz, Txekiar Errepublikan, Estonian eta Belgikan.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/3-02062009-BP/EN/3-02062009-BP-EN.PDF

Bizi-baldintzak Europar Batasunean 2007

Batasunean bizi den hiru pertsonetatik batek esan zuen, data horretan bertan, ez zela gai bere baliabideekin aurreikusi gabeko etxeko gastu bati aurre egiteko (Estatu bakoitzaren pobrezia arriskuaren errenta-atalasearen hamabirenaren baliokidea dena).

Eurostaten informazioaren arabera, Letonia, Hungaria eta Poloniako biztanleen erdiak baino gehiagok ez zuen egoera horri aurre egiteko baliabiderik; Suedian, Danimarkan, Holandan eta Belgikan, ordea, gutxi gorabehera bost pertsonetatik batek.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/3-28052009-AP/EN/3-28052009-AP-EN.PDF